Baztango Udala

LIFE-IREKIBAI proiektuaren laguntzaz Baztango Udalak erreka eta inguruko herrilurren garbiketa auzolanak antolatu ditu bertze urte batez

Baztango Batzar Nagusiak 2016an martxan paratu zuen "Baztango herrilurretako zabortegien garbiketa plana"ri jarraipena emanez eta ingurumenaren egunaren harira, auzolanak antolatu ditu Udalak bailarako zenbait herriekin elkarlanean

Aurten ere, aitzineko urtetakoari jarraipena emanez, ekainaren 5ean ospatzen den ingurumenaren munduko eguna baliatuz, garbiketa auzolanak antolatu ditu Baztango Udalak LIFE-IREKIBAI proiektuaren ingurumen boluntariotzaren laguntzaz. Auzolanak joan den ekainaren 2rako deitu ziren **Oronoz, Lekaroz, Elizondo eta Amaiurren** eta erran bezala, herrilurretako zabortegiak eta erreka bazterrak garbitzeko aukera eskeintzen zen hauetan.

Auzolanak hasera batean lau herri hauetan deitu baziren ere, errekaren maila altua ikusita Oronozko zita gibelatzera behartuak ikusi ziren.

Osotara 50 lagun bildu, goiz ederra pasatu, zabor kilo andana atera eta gosari eder batekin akitu zuten ekimena hiru herri hauetan.

Gure mendi eta erreketatik zabor aunitz ateratzeko balio izateaz gain, ekimen hauek gaur egun hain beharrezkoa den ingurumenarekiko sentsibilizazioa landu eta hau haunditzeko arras baliagarriak dira.

ZORIONAK ETA MILA ESKER PARTEHARTZAILE GUZTIEI!!!!!!

Argazkiak eta informazio gehiago:

LIFE IREKIBA WEB ORRIA: **Ibaietako Ingurumen Boluntariotza eta Sentsibilizatze ekimenak**

https://www.irekibai.eu/eu/zer-egiten-dugu/jendea-sentsibilizatzea/#ffs-tabbed-22

- 2018/06/02. *Ingurumenaren Nazioarteko eguna*. Baztan-Bidasoa erreka garbiketa.
- Baztan. Lekaroz
- Baztan. Elizondo
- Baztan. Amaiur
- Bertizarana. Narbarte

Baztanen, 2018ko ekainaren 12an
Miren Meoki. Baztango Udaleko Hondakin teknikaria

Baztango Udala

El Ayuntamiento de Baztan organiza un año más auzolanes de limpieza de ríos y comunales cercanos en colaboración con el proyecto LIFE-IREKIBAI

Dando seguida al "Plan de limpieza de los vertederos del comunal de Baztan" puesto en marcha en 2016 por la Junta General de Valle y a raíz del día del Medio Ambiente, el Ayuntamiento ha organizado "auzolanes" en colaboración con los pueblos que han mostrado interés

Este año, siguiendo con la labor comenzada años atrás, se han vuelto a organizar auzolanes de limpieza en Baztan al hilo del día del medio ambiente (5 de junio). El ayuntamiento ha contado con la ayuda de la sección de voluntariado ambiental del proyecto LIFE-IREKIBAI. En principio la llamada a los "auzolanes" fué para el pasado 2 de junio el los pueblos de **Oronoz, Lekaroz, Elizondo y Amaiur** y la idea era, como se ha dicho, limpiar el río y zonas de terreno comunal cercanas.

Al final, las fuertes lluvias de días atrás impidieron la limpieza prevista en Oronoz y se vieron obligados a retrasar la cita.

En los otros tres pueblos se reunieron 50 personas que despúes de pasar una bonita jonada y acumular gran cantidad de kilos de basura acabaron la mañana con un buen almuerzo.

Más allá de limpiar y sacar mucha basura abandonada en nuestros ríos y montes, este tipo de acciones cobran cada vez más importancia por ser iniciativas que trabajan y aumentan la sensibilización ambiental.

¡¡¡FELICIDADES Y MUCHAS GRACIAS A TODAS LAS PERSONAS PARTICIPANTES!!!

Baztango Udala

Fotos y más información en:

LIFE IREKIBA WEB ORRIA: **Ibaietako Ingurumen Boluntariotza eta Sentsibilizatze ekimenak**

https://www.irekibai.eu/eu/zer-egiten-dugu/jendea-sentsibilizatzea/#ffs-tabbed-22

- 2018/06/02. *Ingurumenaren Nazioarteko eguna*. Baztan-Bidasoa erreka garbiketa.
- Baztan. Lekaroz
- Baztan. Elizondo
- Baztan. Amaiur
- Bertizarana. Narbarte

Baztan, 12 de junio de 2018
Miren Meoki. Técnica de residuos del Ayuntamiento de Baztan